

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



**MEMORIA
GARAPENERAKO
LANKIDETZA**

2016/17 ikasturtea

www.ehu.eus



**UPV/EHUko GARAPENERAKO
LANKIDETZA BULEGOAREN MEMORIA
2016/2017 ikasturtea**



1. SARRERA.....	1
2. HELBURU NAGUSIAK.....	2
3. BULEGOAREN EKINTZAK	2
3.1. Beste erakunde batzuekin batera garapenerako lankidetzak bultzatzeko eginiko hitzarmenak.....	2
3.2. Garapenerako unibertsitate lankidetzak proiektuetarako diru laguntzen deialdia.....	3
3.3. Gizarte mugimenduekin elkarlanean egiten diren jarduerak finantzatzeko diru laguntzen deialdia	5
3.4. Unibertsitateko kideentzat antolatutako garapenerako lankidetzari eta hezkuntzari buruzko jardunaldi eta jarduerak	6
3.5. Asilo eskatzaileen eskubideen alde egindako jarduerak	7
3.6. Aholku teknikoa irakasle eta ikertzaileei, AZPko langileei eta ikasleen elkarteei	11
3.7. Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren inguruan UPV/EHUko ikasleentzat antolatutako ikastaro monografikoak	12
3.8. Garapenerako lankidetzarako unibertsitate praktikak eta gradu amaierako lanak (GRAL) egiteko programa	13
3.9. Jarduera solidarioak eta gizarte erakundeak	18

1. SARRERA

Nazio Batuen estatu kideek 2030 Agendako Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) onartu zituzten 2015eko irailean. Agenda hori 2016ko urtarrilaren lehen sartu zen indarrean, eta arlo ekonomikoa, soziala eta ingurumen arloa hartzen dituzten 17 helburu eta 169 xede integratu eta zatituz ditu. Gainera, 2030ean, lehen aldiz, lortu beharreko xedetzat jo da kalitatezko goi mailako hezkuntzarako sarbide inklusibo eta ekitatiboa. Horrez gain, lehen aldiz, era esplizituan adierazi da zientzia Garapen Iraunkorrerako Helburu batzuk lortzeko behar den jakintza sortzeko motorretako bat dela. Horregatik guztiagatik, argi dago unibertsitateak ardura handia duela Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda aplikatzean. Ardura horrek esan nahi du GIHak unibertsitateko politiketan zeharka landu behar direla eta hainbat ekintza arlotan txertatu, besteak beste prestakuntzan, ikerketan eta unibertsitate hedakuntzan.

Hori dela eta, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Legean (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bidez eguneratua), lehen aldiz aipatzen da unibertsitatea balioen funtsezko transmisorea dela eta unibertsitateak aparteko arduraz sustatu behar dituela herrialdeen arteko elkarrizketa, bakea eta lankidetzak. Era berean, nazioarteko lankidetzaz eta elkartasunaz diharduen 92. artikuluan, legeak dio unibertsitateek ahalegina egingo dutela beren kideek nazioarteko lankidetzako eta elkartasuneko jardura eta proiektuetan parte har dezaten, eta unibertsitateek bultzatuko dituztela bakearen kultura, garapen iraunkorra eta ingurumenarekiko errespetua sustatzen dituzten jardura eta egitasmoak, balio horiek aurrerabide solidarioaren funtsezko elementuak diren aldetik. Bestalde, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Estatutuaren, lehenengo tituluan, UPV/EHUren izaera eta helburuei buruzkoan, jasota dago unibertsitateak nazioarteko trukeen eta lankidetzaren alde egingo duela, eta beren-beregi aipatzen da garapenerako lankidetzak. Garapenerako unibertsitate lankidetzak (GUL) aberasgarria da, alde humanotik nahiz akademikotik, bai lankidetzan diharduten pertsonentzat eta bai haien unibertsitateentzat. Premisa hori abiapuntu, UPV/EHUK, Gobernu Kontseiluak 2007ko otsailaren 8an egindako bileran, onartu zuen bat egitea Espainiako unibertsitateek garapenerako lankidetzaren inguruan egindako jokabide kodearekin, zeina Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarreko (EUEB) Nazioarteko Harremanetarako Espainiako Unibertsitateen Batzordeak onartu baitzuen. UPV/EHUK bi egitura hauen bitartez egiten du batez ere garapenerako lankidetzari lotutako bere jardura: UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Kontseiluaren bitartez eta UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoaren bitartez.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Kontseilua UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2009ko uztailaren 22ko bileran hartutako erabakiaren bitartez sortu zen, unibertsitateko kideentzako lanerako, kontsultarako eta parte hartzeko organoa izan zedin garapenerako lankidetzaren arloan. Garapenerako lankidetzan lan egiten duten administrazio eta zerbitzuetako langileak (AZP), irakasle eta ikertzaileak eta ikasleak osatzen dute kontseilua. Horrez gain, Garapenerako Lankidetzak Bulegoko teknikariek Kontseiluko idazkari lanak egiten dituzte haren bileretan.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoa Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzari atxikita dago. UPV/EHUK zerbitzu hau sortu zuen garapenerako unibertsitate lankidetzak sustatzeko, hau da, unibertsitateko kideek beste gizarte batzuen gaitasunak –bai eta geure gizartearenak ere– sendotzearen alde lankidetzaren bidez egiten dituzten elkartasun ahalegin guztiak sendotzeko, bereziki unibertsitatearen eta hezkuntzaren arloan. UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoa, zehazki, sektore ezberdinetako unibertsitateko kideek garapenerako lankidetzaren arloan egiten duten ahalegina koordinatzen, laguntzen eta bideratzen saiatzen da.

2. UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA: HELBURU NAGUSIAK

Hona hemen UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza bulegoak egiten duen jardueraren bitartez lortu nahi dituen helburuak:

- Garapenerako lankidetza eta hezkuntza unibertsitatearen gizarte eginkizunean txertatzea.
- Elkartasun balio unibertsalean oinarritutako prestakuntza sustatzea, eta gizarte arazoei buruzko eztabaidetan parte hartzea, zuzentasuna, jasangarritasuna eta giza eskubideen errespetua oinarri hartuta.
- Munduko hainbat lekutan gizakiaren garapena baldintzatzen duten era askotako arazoak ezagutzea, ikertzea eta hedatzea bultzatzea, unibertsitateko kideak arazo horietaz jabetu daitezen.
- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren zerbitzura giza baliabide espezializatuak jartzea, eta, beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin batera, lankidetzarako proiektu eta programak abian jartzeko zereginean parte hartzea.
- Unibertsitateko kideen artean elkartasun aktiboa eta boluntario lana indartzea, ikasleen artean batik bat, eta haien boluntario lana erraztea esparru espezifiko batean, programa propioak martxan jarri edo ikasleak beste erakunde batzuetara bideratuz.

3. UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOAREN EKINTZAK

Helburuok lortzeko, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoak hainbat arlotako erkintza ugari antolatzen edota koordinatzen ditu. Garrantzitsuenen artean, honako hauek: hitzarmenak sustatzen ditu beste organismo eta erakundeekiko lankidetza bultzatzeko; Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako proiektuetarako diru laguntzak antolatzen ditu; gizarte mugimenduekin lankidetzan egiten diren elkartasun eta lankidetza jarduerentzako diru laguntzak ematen ditu; lankidetza eta hezkuntzaren arloko jardunaldiak eta jarduerak antolatzen ditu unibertsitateko komunitatearentzat; asiloa eskatzen duten pertsonen eskubideen aldeko jarduerak antolatzen ditu; garapenerako lankidetzari buruzko aholkularitza teknikoak ematen die irakasle eta ikertzaileei, AZPko langileei eta ikasleen antolakuntzei; garapenerako lankidetzari eta hezkuntzari buruzko ikastaro monografikoak antolatzen ditu UPV/EHUko ikasleentzat; garapenerako lankidetza oinarri duten praktika eta gradu amaierako lanen programa kudeatzen du; ikasleak eta boluntario lanetarako erakundeak harremanetan jartzen ditu, elkartasun eta lankidetza jarduerak egiteko boluntarioritza proiektu autogestionatuak kudeatzeko. Hona hemen ekintzak, zehaztuta:

3.1. Beste erakunde batzuekin batera garapenerako lankidetza bultzatzeko egindako hitzarmenak.

Azken urteotan hitzarmenak sinatu ditugu Euskadiko eta Euskal Autonomia Erkidegotik (EAE) kanpoko hainbat gizarte instituzio eta erakunderekin. Hitzarmen horiei esker, unibertsitatearen eta gizartearen arteko lotura sendotzen jarraitzen dugu, zabalkunde programetan parte hartuz eta irakaskuntzaren, prestakuntzaren eta ikerketaren arloan trukeak eta elkarlanak eginez. 2016/17 ikasturtean honako hitzarmen hauek bideratu dira UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoan:

3.1.1. Beste administrazio publiko batzuekin egindako hitzarmenak

Arabako Foru Aldundiaren eta UPV/EHUren arteko lankidetzaren hitzarmena, Arabako Campusean garapenerako lankidetzaren proiektuak sustatzeko. Hitzarmen honen helburua da 15.000 euroko ekarpena arautzea, proiektu hauek diruz laguntzeko: "Gaztenpatia: praktikak eta gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzaren proiektuetan egiteko programa" eta "Bariba hizkuntza (Benin) hezkuntzarako indartzea".

Euskal Fondoaren-Lankidetzarako Euskal Udalen Erakundearen Elkartearen eta UPV/EHUren arteko lankidetzaren hitzarmena, praktikak eta gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzaren proiektuetan egiteko UPV/EHUko 2016/17ko programan elkarrekin lan egiteko.

Bilboko Udalen eta UPV/EHUren arteko lankidetzaren hitzarmena, garapenerako lankidetzarako laguntzan lehentasuna duten herrialdeetatik eta gure unibertsitatearekin hitzarmena daukaten unibertsitateetatik datozen ikasleei ostatuarekin eta mantenuarekin diruz laguntzeko. 2016/17 ikasturtean, 8.000 euro eman dizkigu Bilboko Udalen Berdintasuna, Lankidetzaren eta Herriarrak Arloak, eta helburu horretarako erabiliko dira, UPV/EHUK egiten duen deialdi publiko baten bitartez. 2016/17 ikasturtean, 6 ikasleri eman zaie laguntza hori (4 emakume eta 2 gizon), eta horietako bat asiloa eskatzen duen ikasle bat da.

3.1.2. EAEko gizarte erakundeekin egindako hitzarmenak

Hitzarmenak egin dira **Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Garapenerako Gobernuaren Kanpoko hainbat Erakunderekin (GGKE)**, eta horiei esker sendotu egin da praktikak eta gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzaren egiteko programa. 1. taulan zehazten dira.

1. taula: 2016/17 ikasturtean EAEko GGKEekin eginiko hitzarmenak

UPV/EHUko IKASTEGIA	EUSKAL LANKIDETZA ERAKUNDEA
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Asociación Internacional de Sanitarios en España
Psikologia Fakultatea	Euskal Fondoa

Programa honen barruan, beste herrialde batzuetako erakundeekin ere sinatu dira hitzarmenak. 2. taulan zehazten dira.

2. taula: 2016/17 ikasturtean atzerriko erakundeekin eginiko hitzarmenak

UPV/EHUko IKASTEGIA	ATZERRIKO LANKIDETZA ERAKUNDEA
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea.	CODEINFA
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	CODEINFA
Psikologia Fakultatea	Fundación Huesped
Farmazia Fakultatea	Windlife Conservation Society.

3.2. Garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuetarako diru laguntzen deialdia.

Deialdi honen helburua da Unibertsitateko garapenerako unibertsitate lankidetzako (GUL) proiektuetarako diru laguntzak ematea. Deialdia urtero egiten da, eta unibertsitateko komunitateak GUL proiektuetan parte har dezan sustatzea du xede. Horretarako, UPV/EHUk laguntzak ematen ditu unibertsitateko kideek bideratutako garapeneraren arloko lankidetzako proiektuak finantzatzeko, zati batean edo osorik. Proiektuok alor hauetakoak izan daitezke: irakaskuntza eta prestakuntza; garapenerako ikerketa; informazioaren, ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia; garapen bidean dauden herrialdeetako unibertsitateak indartzeko ahalegina; eta garapenerako hezkuntza.

2016/17 ikasturtean, GUL proiektuetarako diru laguntzen deialdi bat egin da Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzaren 2017ko otsailaren 22ko ebazpenaren bitartez. Deialdi honetarako 30.000 euro eman dira, eta proiektu bakoitzeko eman daitekeen gehieneko diru laguntza 15.000 euro da. Azken urteotan egin duen moduan, aurten ere UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Bulegoak tutoretza pertsonalizatuak eman ditu proiektuen eskaerak egiten laguntzeko eta proiektuen jarraipena egiteko. Aholkularitza hau ezinbestekoa da garapenerako lankidetzako proiektuak formulatzen esperientzia gutxi duten irakasle eta ikertzaileek eta AZPko langileek beren proposamenak aurkeztu ahal izan ditzaten deialdi honetan edo beste batzuetan. Laguntza hauei esker, hiru proiektu jarri dira martxan 2017an El Salvadorren, Kolonbian eta Argentinan. 3. taulan, proiektuen izenburuak, arduradunak eta horietako bakoitzari esleitu zaion zenbatekoa zehazten dira.

3. taula: GUL proiektuen 2017ko deialdiaren esleipena

2017ko GUL PROIEKTUAK		
Proiektuaren izenburua	Arduraduna	Laguntza
Fortalecimiento de la cooperación universitaria entre la F. de Ingeniería y Arquitectura de El Salvador (FIA-UES) y la UPV/EHU para el intercambio de conocimientos científico-tecnológicos (fase2)	Aitor Gómez Arribillaga Mugarik Gabeko Ingeniariak (MGI)	13.000 €
Propuesta formativa para el profesorado de Enseñanzas Medias de alumnado en situación de vulnerabilidad social y educativa en el área metropolitana de Buenos Aires para el abordaje de consumo de alcohol y otras drogas y exposición a la violencia	Patricia Insua Cerretani Psikologia Fakultatea	6.220 €
Afrontamiento, perdón, reconciliación y otros desafíos para las mujeres víctimas del conflicto armado colombiano	Darío Páez Rovira Psikologia Fakultatea	13.000 €

Halaber, 2016/2017 ikasturtean, 2016ko deialdiaren bitartez diruz lagundutako proiektuen jarraipena egin da, eta proiektu horien egileek 2016ko azken lauhilekoan aurkeztu zituzten beren emaitzak eta ondorioak. 4. taulan, proiektu horien izenburuak, arduradunak eta esleitutako zenbatekoak zehazten dira.

4. taula: GUL proiektuen 2016ko deialdiaren esleipena

2016ko GUL PROIEKTUAK		
Proiektuaren izenburua	Arduraduna	Laguntza
Evaluación técnica y social de fogones mejorados de biomasa autoconstruidos por familias de comunidades rurales de Nicaragua	Constanza Lobo Igartua Mugarik Gabeko Ingeniariak (MGI)	8.553 €
Herramientas audiovisuales para el empoderamiento de comunidades desfavorecidas en la implementación de los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Cooperación de la UPV/EHU con la universidad de San Paulo para el desarrollo sostenible de la Favela Sao Remo	Irati Agirreazkuenaga Onaindia Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	10.000 €
Sierra Prietako komunitatearen garapenerako ezagupen, ahalduntze eta parte-hartzea sustatzeko proiektua	Rakel Oion Encina Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	4.670 €
Consumo de alcohol y otras drogas, y exposición a la violencia en adolescentes en situación de vulnerabilidad educativa y social, en el área metropolitana de Buenos Aires (Argentina): Herramientas para el profesorado	Patricia Insua Cerretani Psikologia Fakultatea	7.000 €

3.3. Gizarte mugimenduekin elkarlanean egiten diren jarduerak finantzatzeko diru laguntzen deialdia.

Gizarte mugimenduak, hala beren jarduera eta kultura antolatzaileagatik eta egiten dituzten errealitatearen diagnostiko eta proposamenengatik nola garatzen dituzten estrategiengatik, funtsezko subjektuak dira gizarte aldatu eta gainditzeko moduak eta alternatibak martxan jartzeko. Premisa horretatik abiatuta, deialdi honen bitartez, hainbat diru laguntza eman dira unibertsitateko komunitatea gizarte mugimenduek gizarte eraldatzeko egiten dituzten ekintzetan izan ohi dituzten arazoetara eta beharretara gerturatzeko, alde batetik, eta lan horretan sartzeko ekarpen eraginkorra egiten duten jarduerak osorik edo zati batean finantzatzeko, bestetik. Deialdi hau 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak emandako ebazpenaren bitartez. Deialdi honetarako 7.500 euro eman ziren, eta proiektu bakoitzeko gehienez ere 7.500 euro eman zitezkeen. UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoak irailean argitaratu zuen 2016ko deialdia, 5. taulan zehaztutako moduan.

5. taula: gizarte mugimenduekin elkarlanean egiten diren jarduerak finantzatzeko 2017ko deialdiaren esleipena

GIZARTE MUGIMENDUEN 2017ko PROIEKTUAK		
Proiektuaren izenburua	Arduraduna	Laguntza
Derechos a escena: abriendo con orgullo las puertas de la Universidad Pública Vasca al colectivo de personas refugiadas	Oscar Arroyuelo Suarez Zuzenbide Fakultatea	3.700 €
Baserritik mundura! Formación con y para el Movimiento Campesino Vasco	Efren Arriskurrinaga Mirandona Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	2.500 €
Aniztasuna eta alkartasuna zabalduz: extender la estrategia antiracista y promoción de la participación voluntaria	Maitane Arnoso Martinez Psikologia Fakultatea	1.300 €

3.4. Unibertsitateko kideentzat antolatutako garapenerako lankidetzari eta hezkuntzari buruzko jardunaldi eta jarduerak.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa UPV/EHUko komunitateari garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren arloan ematen zaion zerbitzua da, eta bulegoaren funtzio garrantzitsuenetako bat da hedakuntza eta sentsibilizazio jarduerak antolatzea unibertsitateko komunitatearentzat (ikasle eta ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak), ekonomikoki behartsuenak diren herrialdeen errealitateen berri izan dezaten, baina baita gure gertuko gizartearen sortzen diren desberdinkerien berri ere. Sentsibilitatearen bitartez, errespetuan, berdintasunean, ekitatean eta justizian oinarritutako harremanak sustatzen dituen gizarte bat eraiki nahi dugu.

2016/2017 ikasturtean, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak nazioarteko bi jardunaldi antolatu ditu. Lehenengoa Arabako Campusean egin zen, izenburu honekin: "Nazioarteko lankidetzaren jardunaldi monografikoak. Erakunde arteko lankidetzaren 3. aldeko hezkuntzaren eta UPV/EHUren arteko eskualde koordinazioa" Topaketa hauen helburua "Fortalecimiento de la Educación Bilingüe en Ecuador" izeneko proiektua sustatzea eta indartzea zen batez ere. Nazioarteko bigarren jardunaldian, hainbat ekitaldi egin ziren UPV/EHUko hiru campusetako ikastegietan, izenburu honekin: "Kulturarteko I. Gaztenpatia topaketa". Helburua zen Gaztenpatia programan parte hartzen duten eragileak harremanetan jartzea.

2016/17 ikasturteko jardunaldiak eta topaketak



Nazioarteko lankidetzaren jardunaldi monografikoak. Erakunde arteko lankidetzaren 3. aldeko hezkuntzaren eta UPV/EHUren arteko eskualde koordinazioa
2016ko irailaren 14an



Kulturarteko I. Gaztenpatia topaketa
2016ko abenduaren 12tik 16ra

Era berean, nabarmentzekoa da "Invisible Express" film laburren III. Lehiaketa ere antolatu zela. Jarduera hau urtero antolatzen dute UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoak eta Kultura, Communication y Desarrollo (KCD) GKEak. Lehiaketa "Film Sozialak" Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdiaren barruan egiten da, eta UPV/EHUko edozein ikaslek parte har dezake bertan, banaka edo taldean. 2016an film laburretarako proposatutako gaia "Antiklixé" izan zen. Titulu horren bitartez, ikasle parte hartzaileei proposatu zitzaizkien estereotipoak eta aurreiritziak amaitzea, beste kultura batzuetako pertsonekin batera gozatzeko. Edizio honetan 15 lan aurkeztu ziren denera, eta 108 ikaslek parte hartu zuten. Ikasle horietatik 56 emakumeak izan ziren, eta 52, gizonak. Film laburren irabazlea [Abdullah](#) izan zen; hala publikoaren nola epaimahaiaren saria jaso zuen: 1.000 euro eta 500 euro, hurrenez hurren.

3.5. Asilo eskatzaileen eskubideen alde egindako jarduerak.

Unibertsitateak, lankidetzako beste eragile bat den heinean, baditu tresnak larrialdi egoeretan laguntza emateko, suntsitutako lekuak berreraikitzeke eta beren lurraldea utzi behar izan dutenei prestazioak emateko. Alde horretatik, unibertsitateko komunitatea osatzen duten pertsonen banan-banan ematen duten laguntzaz gain, unibertsitateak, erakunde gisa, kalteak jasandako pertsonen eskura jarri behar ditu bere giza potentziala, baliabideak eta ezagutza, haien bizi kalitatea hobetze aldera.

Hori dela eta, UPV/EHUko **Gobernu Kontseiluak erabaki bat hartu zuen 2015eko urriaren 1ean, aho batez**, eta, erabaki horren bitartez, bere gain hartu zuen asilo eskatzaileen eta errefuxiatuen eskubideak argi eta garbi defendatzeko zeregina. Akordio horretan, konpromisoa hartu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko errefuxiatuen aldeko hainbat ekintza egiteko, lau ardatzen inguruan: 1) oinarritzko laguntza ematea asiloa eskatzen duten ikasleei, 2) egoera akademikoa erregularizatzeko beharrei erantzutea, 3) sentsibilizazioa edo eztabaida sustatzea, eta 4) laguntza ekonomiko eta materiala ematea. Orain arte ekintza hauek egin dira ardatz bakoitzean.

• **1. ardatza: unibertsitate arloko premia bereziei erantzutea.**

Errefuxiatuak sartu dira ikasle bisitarien eskaintzen diren hizkuntza ikastaroak (gaztelania eta euskara) egin ditzaketen onuradunen artean. 2016/17 ikasturtean, UPV/EHU matrikulatutako lau asilo eskatzailek egin dituzte ikastaro horiek.

• **2. ardatza: egoera akademikoa erregularizatzeko premiei erantzutea.**

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoa saiatu da asilo egoeran dauden etorkizuneko ikasleei laguntzen eta unibertsitate sartzeko edo espediente lekuz aldatzeko bideen inguruko informazioa ematen, UPV/EHU sartzeko laguntze aldera. Horretarako, 2016/17 ikasturtean, aldian-aldian bilerak egin dira errefuxiatuak lehen eta bigarren instantzian hartzen dituzten erakunde, elkarte eta antolakuntzekin. Hona hemen erakundeak zehaztuta:

- Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea (CEAR)
- Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisionatua (ACNUR)
- Espainiako Gurutze Gorria (CRE)
- Migrazioetako Espainiako Batzorde Katolikoa Elkarte (ACCEM)

Horrez gain, 2016/17 ikasturtean, laguntza pertsonalizatua eman zaie asiloa eskatzen duten bederatzi ikasleri. Ikasle horiek denak EAEn bizi diren errefuxiatuak hartzen dituzten erakundeek bideratu dituzte (CEAR, CRE eta ACCEM). UPV/EHUK ahalegin handia egin du ikasle horiek ikasketak atzerrian hasi dituzten pertsonentzako gradura sartzeko bidean matrikulatzeko. Bide horren bitartez sartzeko, ikasleak egiaztatu behar du gutxienez bere jatorrizko unibertsitateko lehen mailako 30 ECTS gaindituak dituela, eta UPV/EHU-n egin behar diren graduko irakasgaiekin baliozkotu behar dira.

- **3. ardatza: sentsibilizazioa eta eztabaida.** 2016/17 ikasturtean, hainbat erakusketa, jardunaldi eta mintegi egin dira sentsibilizazioa eta eztabaida sustatzeko. Hona hemen zerrenda:

Erakusketak



"The Most Important Think. Retratos de una huida. Atzoko eta gaurko errefuxiatuak" erakusketa. Carlos Santamaria Zentroa (Gipuzkoako Campusa). 2017ko apirilaren 10a



ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK-en erakusketa, Leioako Ostalaritza Eskolan (Bizkaiko Campusa)
2017ko martxoaren 21etik 31ra



[Bisita gidatuak, Zuzenbideko, Psikologiako eta Kriminologiako ikasleen eskutik](#) (Gipuzkoako Campusa)

2016ko urriaren 24tik azaroaren 6ra

Jardunaldiak eta mintegiak



“La crisis de las personas refugiadas y su impacto sobre la UE”. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Bizkaiko Campusa)

2017ko martxoaren 28a



“Izuaren Ikuskizuna - Rodrigo Karmy - Razón imperial y mundo árabe contemporáneo”. Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Bizkaiko Campusa)

2017ko martxoaren 22a



[Ikasle errefuxiatuen hitzaldia eta GERNIKA 2017ren aurkezpena](#). Liburutegi Nagusiko Batzar Aretoa (Bizkaiko Campusa)

2017ko martxoaren 21a



“[Ongi etorri errefuxiatuak. Educando para la acogida](#)”. Psikologia Fakultatea (Gipuzkoako Campusa)

2016ko abenduaren 2a



“Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE): behar zaitugu!” HITZALDIA. Liburutegi Nagusiko Batzar Aretoa (Bizkaiko Campusa), eta Greziarako karabana.
2016ko azaroaren 16a



[“Emakume errefuxiatuak eta indarkeria matxista.](#) Zergatik izaten dute emakumeek zailtasun handiagoa errefuxiatu estatusa eskuratzeko?”. Liburutegi Nagusiko Batzar Aretoa (Bizkaiko Campusa)
2016ko azaroaren 2a



“Conferencia de Migración y Refugio. Un mundo sin Barreras”. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola (Bizkaiko Campusa)
2016ko urriaren 19a



[“Seguir con vida”. Kontzertua, mahai ingurua eta erakusketa.](#) Bizkaia Aretoa (Bizkaiko Campusa)
2016ko irailaren 25a



[Mugarik gabeko elkarrizketak.](#) Bizkaia Aretoa (Bizkaiko Campusa)
2016ko irailaren 1a

Beste jarduera batzuk



[ELEGY- Harrotasunaren antzerkia.](#) Ignacio Barriola Ikasgelategiko ekitaldi aretoa (Gipuzkoako Campusa)
17 2016ko abenduaren 19a

- **4. ardatza: diru funtsa.** Akordio hauek egin dira 2016/17 ikasturtean egin diren ekintzak finantzatzeko.
 - UPV/EHUko Letren Fakultatearen % 0,7 funtsaren ekarpena.
 - Bilboko Udalarekin hitzarmena, Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusian ikasle errefuxiatu baten mantenua haren gain hartzeko.
 - Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiarekin hitzarmena. Horren bitartez, bere gain hartzen du bere instalazioetan bizi diren errefuxiatuen ostatua.
 - UPV/EHUren diru funts bat sortu da, 10.000 eurokoa. 2016ko azaroaren 30ean, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak diru laguntzen deialdi bat argitaratu zuen, EAEn errefuxiatuei laguntzeko ekintzetatik sortzen diren ezohiko beharrei erantzuteko eta unibertsitateko komunitatearentzako sentsibilizazio jarduerak egiteko. Deialdi horren bidez, diru laguntzak eman dira EAEn errefuxiatuei laguntzeko jarduerak osorik edo zati batean finantzatzeko. UPV/EHUko Gobernu kontseiluak 2015eko urriaren 1ean hartutako erabakiaren bidez EAEn errefuxiatuei laguntzeko jardueretarako sortutako 10.000 euroko funtsarekin ordaindu dira.
7. eta 8. taulan lehen aipatutako funtsen esleipena adierazten da; 17.107,95 eurokoa da guztizko zenbatekoa.

7. taula: 2016an asiloa eskatu duten ikasleei laguntzeko funtsaren esleipena

Kontzeptua	Onuraduna	Emandako finantzaketa
Garraioa eta mantenua	Asiloa eskatzen duen ikasle kolonbiarra	1.640 €
Garraioa eta materiala	Asiloa eskatzen duen ikasle errusiarra	1.500 €
Mantenua, ostatua eta materiala	Asiloa eskatzen duen ikasle siriarra	9.456 €
Materiala eta fotokopiak	Asiloa eskatzen duen UPV/EHUko ikaslea	751,95 €

8. taula: 2016an sentsibilizazio jarduerak egiteko funtsaren esleipena

Kontzeptua	Onuraduna	Finantzaketa
Ciudades refugio	Juan Hernández Zubizarreta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea.	2.000 €
Ongi etorri errefuxiatuak: educando la acogida	Maitane Arnoso Psikologia Fakultatea	1.760 €

3.6. Aholku teknikoa irakasle eta ikertzaileei, AZPko langileei eta ikasleen elkarteei.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak aholku teknikoa ematen die unibertsitateko kideei garapenerako lankidetzaren inguruan. Laguntza teknikoa gehienbat GUL proiektuak prestatzeko eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko metodologiei buruzkoa da, bai eta kanpoko finantzabideak lortzeko teknikei buruzkoa ere. 9. taulan, Bulegoak 2016/17 ikasturtean kudeatutako proiektuak zehazten dira, bai eta deialdiak, arduradunak eta emandako laguntzak ere.

9. taula: 2016/17 ikasturtean kudeatutako GUL proiektuak

Deialdia	Proiektua	Arduraduna	Emandako finantzaketa
FOCAD	Cooperación para un nuevo modelo energético: La transición democrática de la deuda ecológica al buen vivir. Tradebu	Iñaki Bárcena Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	174.845,03 €
Espainiaren eta Brasilen arteko mugikortasun programa	Universidade de Brasilia	Gustavo Fernandez Zientzia eta Teknologia Fakultatea	10.000 €
	Universidade do Estado do Rio de Janeiro	Oscar Álvarez Gila Letren Fakultatea	19.440 €

3.7. Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren inguruan UPV/EHUko ikasleentzat antolatutako ikastaro monografikoak.

Unibertsitateak, zeregin nagusitzat hezkuntza duen erakundea den aldetik, hurrengo belaunaldiak prestatu behar ditu gizartearen arazoei buruzko eztabaidetan parte har dezaten, ekitatea, jasangarritasuna eta giza eskubideen errespetua bultzatzearen alde. Premisa hori kontuan harturik, UPV/EHUko zenbait ikastegirekin, Hegoa Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerako Buruzko Ikasketa Institutuarekin eta zenbait euskal GGKerekin batera, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak 2004az geroztik hamar bat ikastaro monografiko antolatzen ditu urtero garapenera eta lankidetzaz. Egitasmoa 2004an hasi zenetik 95 ikastaro monografiko eman dira, UPV/EHUko hiru campusetan banaturik.

Ikastaro hauek aukera ematen diete UPV/EHUko ikasleei hainbat gai sakontzeko, hala nola: hezkuntza; ingurumena; elikadura segurtasuna; genero ikuspegia; parte hartze demokratikoa; pertsonen segurtasun politikoa; garapeneraren alderdi teknologikoak; osasuna, hainbat ikuspegiatik; giza eskubideei lotutako arazoak; hazkunde ekonomiko desiragarriko baldintzak; finantza ezegonkortasuna; eta merkatuen globalizazioa.

Ikasturtea hasi aurretik, ikastaro monografikoen batzordeak bilera egiten du ikasturte horretan hiru campusetan emango diren 10 ikastaro monografikoen programak



zehazteko. Ikastaro horietako bakoitza 50 ordukoa da, eta, hortaz, hautazko bi kreditu ematen ditu graduko ikasketetarako. 50 ordu horietatik, 20 ordu ikasgelako aurrez aurrekoak dira, eta 30 ordu, berriz, hitzaldi eta mintegietara joanez eta aurrez aurreko lanak eginez bete behar dira. Honela banatuta daude: Parte orokorra, monografikoen

batzordeak ikastaro guztietarako zehazten duena (6 ordu).

- Parte espezifikoa, ikastaroak oinarri duen titulazioarekin edo ikastegiaren jakintza arloarekin lotutakoa (14 ordu). Ikastaroaren arduradunak zehazten du bigarren zati honen edukia.

Irakasle gehienak UPV/EHUkoak dira, baina Euskal Herriko GGGKetakoeak eta UPV/EHUK lankidetzaren hitzarmenak sinatuak dituen unibertsitate elkarteetakoek ere ematen dituzte eskolak. 2016/17 ikasturtean, besteak beste GGKE hauek aritu dira ikastaro monografikoak ematen: Mugarik Gabeko Ekonomialeariak, Haurralde Fundazioa, Bidez Bidez, Coopera, KCD, Gipuzkoako Medicus Mundi eta Mugarik Gabeko Ingeniariak (MGI). Ezinbestekoa da ikastaro monografikoa egitea practicum edo gradu amaierako lana garapenerako lankidetzaren arloan egiteko, eta oso gomendagarria da boluntario aritzeko.

2016/17 ikasturtean, guztira 9 ikastaro monografiko eman dira eta 175 ikasle matrikulatu dira; horietatik, %75 emakumeak izan dira. 10. taulan zehaztuta daude mintegien izenburuak, mintegiak eman diren ikastegiak, egunak, eta parte hartzaileen kopurua, generoaren arabera zehaztuta.



10. taula: 2016/17 ikasturtean garapenerako lankidetzari buruz emandako ikastaro monografikoak. Ikastaroak eman diren campus eta ikastegiak, eta parte hartzaileak, generoaren arabera berezita.

			Guztira	Emakum.	Gizonak
BIZKAIKO CAMPUSA					
Seminario de Desarrollo, Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano	Bilboko Ingeniaritza Eskola	2016/09/30 2016/12/17	19	11	8
Retos actuales del Desarrollo y la Cooperación en la Economía Global	Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	2017/02/17 2017/03/17	22	11	11
GIPUZKOAKO CAMPUSA					
Cooperación solidaria para el desarrollo	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	2016/11/07 2016/11/30	22	20	2
Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano	Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa	2017/02/03 2017/03/24	9	5	4
Hezkuntza eta lankidetzaren garapenean kurtso monografikoa	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	2017/03/08 2017/03/24	29	25	4
Cooperación y Arquitectura	Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa	2017/04/10 2017/04/28	18	12	6
ARABAKO CAMPUSA					
Desarrollo y cooperación solidaria	Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola	2016/09/26 2016/11/28	18	16	2
Cooperación solidaria para el desarrollo	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	2017/03/25 2017/04/11	9	6	3
Cooperación al desarrollo en el ámbito de la nutrición y la salud	Farmazia Fakultatea	2017/02/02 2017/02/12	29	25	4
			175	131	44

3.8. Garapenerako lankidetzarako unibertsitate praktikak eta gradu amaierako lanak (GRAL) egiteko programa.

Garapenerako lankidetzaren proiektuetan praktikak eta gradu amaierako lanak (GRAL) egiteko programak (UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2003ko maiatzaren 13an onartu zuten) ikasleei aukera ematen die nahitaezko praktikak eta gradu amaierako lana garapenean dauden herrialdeetan lankidetzaren programak gauzatzeko dituzten erakundeekin

egiteko eta esperientzia hori prestakuntzaren parte bilakatzeko. Unibertsitatearen misioa da munduan dauden desberdineriekin kontzientziatutako profesionalak prestatzea, gai izango direnak gizartearen aurrerapenean eragina daukaten arazoengatik inguruko eztabaidetan parte hartzeko; eta, hain zuzen ere, misio hori izan zen 2003/04 ikasturtean programa abian jartzeko oinarri. Bestalde, UPV/EHUk berak hartzen ditu bere gain mota horretako praktikak eta GRALak, eta bermatzen du jasagarriak direla eta hezkuntzan eragina dutela. Programak printzipio hauek ditu oinarri:

- Garapenerako proiektuetan egiten diren praktikek prestakuntzari egiten dioten ekarpen handia aitortzen du. Ikasleek hobetu egiten dute prestakuntza akademikoa eta profesionala, hainbat esperientziaren bidez beste gaitasun batzuk garatzeko espazio eta aukera berriak eskuratzen baitituzte.
- Ikasleen eskariari erantzuten dio, eta garapenerako lankidetzan aritzeko motibazio handia ematen die: baliabide gabeziak eta zailtasun handienak dituzten gizartei eta gurearekin alde gero eta handiagoa daukatenei laguntza emateko nahia gailendu behar zaio praktika interesgarri eta aberasgarriak egiteko nahiari, bai maila pertsonalean, bai profesionalean.
- UPV/EHUren eta garapenerako lankidetzako erakundeen arteko elkarlana bultzatzen du, ikasleen praktikak arrakastatsuak izango direla eta unibertsitateko kideak sentibilizatzeko zeregina eraginkorra izango dela bermatzeko.

Praktiken eta GRALen programak laguntzetarako diru funts bat dauka parte hartu nahi duten ikasleen bidaia eta aseguru gastuak ordaintzeko. Ikasle bakoitzak 750 euro jaso ditzake. Diru hori Euskal Fondoak emandako ekarpenetatik lortzen da, bai eta UPV/EHUko ikasleek matrikularen bidez egindako ekarpenetatik ere, hots, %0,7 funtsetik. Horren bidez, jarduera hauek bultzatu nahi dira:

- 1. modalitatea: **garapenerako lankidetzaren alorreko unibertsitate praktikak garatzeko bidean dauden herrialdeetan.** Praktika hauen helburua da ikasleek euren prestakuntza akademikoan jasotako elementu teoriko eta praktikoak bateratzea eta errealitate soziala ebaluatzeko gaitasuna eta gizarte aldatzeko estrategiak planifikatzeko gaitasuna indartzea, era berean euren prestakuntzak ematen dizkien funtzio profesionaletatik gizarte arazoengatik prebentzioari, murrizketari edo konponbideari helduz.
- 2. modalitatea: **garapenerako eta/edo lankidetzaren arloko gradu amaierako lanak.** Lan hauen helburua da UPV/EHUko ikasleek gradu osoan lortutako ezagutzak aplikatzea GGKEk eta lankidetzako erakundeek planteaturiko "arazo teknikoak" ebazteko, GRALa ginez. Honako eragile hauek aritzen dira programan:
 - GGKEak edo lankidetzako erakundeak. Lankidetzarako garapenerarekin lotutako proiektuak jartzen dituzte, unibertsitateko ikasleek esku har dezaten.

- Unibertsitateko ikastegiak. Euren irakaskuntza programan sartzen dituzte GGKEen esparruan egiten diren garapenerako lankidetzako proiektuen harira egin behar diren nahitaezko praktikak edo GRALak.
- Ikasleak. Prestakuntza profesionala osatzeko, curriculumeko praktikak edo GRALa egin behar dituzte garapenerako lankidetzako proiektu batean parte hartuz.
- Finantzaketa ematen duten eragileak (hala nola Euskal Fonda). Besteak beste Bilboko, Gasteizko eta Donostiako udalen ekarpenen bitartez, finantza baliabideak ematen dituzte ikasleen bidaiaren kostuaren zati bat diruz laguntzeko.
- UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa. Aldeen arteko harremanetan bitartekari aritzen da, eta programari jarraipena emateko egin behar diren kudeaketa, prestakuntza eta ebaluazio lan osagarri guztiak egiten ditu.

3.8.1. Programaren 13. edizioaren bilakaera eta emaitzak (2015/16 ikasturtea)

Adierazleen arabera, agerikoa da praktika eta gradu amaierako lanen programaren emaitzak onak izan direla, ikasle partaideen sentsibilizazioan eta elkartasunezko jarreran izan duten eragina kontuan harturik, eta, era berean, ikusi da UPV/EHUko ikasleek gero eta interes handiagoa dutela mota honetako praktikak egiteko. Martxan jarri zenetik 14. ediziora bitartean (2016/2017 ikasturtea), programa honek UPV/EHUko 16 unibertsitate ikastegitako 1.007 ikasle mugiarazi ditu. Ikasle horiek Latinoamerikako eta Afrikako 23 herrialdetan baino gehiagotan ibili dira, hogeita hamar bat lankidetzaren erakundeak kofinantzatutako garapen proiektuetan praktikak egiteko. Zehazki, 14. edizioan (2016/17 ikasturtea) UPV/EHUko 10 ikastegitako 78 ikasleek parte hartu dute programan. Ikasleok Latinoamerikako eta Afrikako 13 herrialdeetatik ibili dira, praktikak edo GRALak garapenerako lankidetzako proiektuen inguruan egiteko. 11., 12. eta 13. tauletan, hurrenez hurren, generoaren, herrialdearen eta ikastegiaren (eskola edo fakultatea) bereizita daude ikasleak. Nabarmentzekoa da emakume ugariak parte hartu dutela programan: ikasle guztien hiru laurdenek baino gehiagok (% 78,20).

11. taula: Garapenerako lankidetzaren proiektuetako praktikak eta GRALa egiteko 2016/17ko programan parte hartu duten ikasleak, generoaren arabera banatuta

	2016/17 ikasturtea	%
Ikasleak	78	100,00
Emakumeak	61	78,20
Gizonak	17	21,80



12. taula: garapenerako lankidetza proiektuetako praktikak eta GRALa egiteko 2016/17ko programan parte hartu duten ikasleak, herrialdearen arabera banatuta

Herrialdea	ikasle kopurua	%
Argentina	11	14,10
Bolivia	5	6,41
Txile	1	1,28
Kongoko ED	1	1,28
Ekuador	2	2,56
El Salvador	15	19,23
Etiopia	2	2,56
Guatemala	9	11,55
Nikaragua	12	15,39%
Peru	8	10,26
Puerto Rico	2	2,56
Dominikar Errepublika	4	5,13
Sahara	6	7,69
Ikasleak, guztira	78	100,00

13. taula: garapenerako lankidetzak eta GRALa egiteko programan parte hartu duten ikasleak, campusen eta ikastegi arabera banatuta

Unibertsitate ikastegia	ikasle kopurua	Erakunde lankidea	Herrialdea
ARABAKO CAMPUSA			
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	3	Euskal Fundoa (3)	Guatemala (3)
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	6	PIES por la Tierra(2) NTD Ingredientes(2) Euskal Fundoa(1) ADSI(1)	Argentina (2) Dominikar Err. (2) El Salvador (1) Peru (1)
Farmazia Fakultatea	4	Euskal Fundoa (3) WILDLIFE CONSERVATION SOCIETY BOLIVIA (1)	Guatemala(3) Bolivia (1)
BIZKAIKO CAMPUSA			
Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola	1	CODEINFA	Txile (1)
Bilboko Ingeniaritza Eskola	2	ISF/MGI (2)	Argentina (2)
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	8	Euskal Fundoa (7) TECHO(1)	EL Salvador(3) Guatemala(2) Nikaragua (3)
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	1	COOPERA (1)	Kongoko ED (1)
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	2	Acción Internacional Sanitarios de España (2)	Ecuador (2)
GIPUZKOAKO CAMPUSA			
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea		Medicus Mundi (1)	Peru (1)
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	28	Haurralde (3) Euskal Fundoa (3) AMS(4) TAU Fundazioa(4) Asoc.Getxo Pro-Sahara ATFAL(6) Movimiento Socio-cultural Trabaja Haití (2) Asoc. Civil Maria Montessori(2) Fundación Compromiso Cristiano Bases Masaya(2) Utopia Fundación Tikal (2)	Argentina (2) Bolivia (4) El Salvador(3) Etiopia(2) Peru (3) Nikaragua (6) Sahara (6) Dominikar Err. (2)
Psikologia Fakultatea	12	Haurralde (9) Fundación Huésped(1) Euskal Fundoa (2)	Argentina (5) Peru (3) Puerto Rico (2) El Salvador(2)
Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa	9	TECHO (1) Euskal Fundoa (9)	Nikaragua (2) El Salvador(6) Guatemala(1)
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	1	Euskal Fundoa (1)	Nikaragua (1)
Ikasleak, guztira	78		

3.8.2. 2016/17ko Gaztenpatia programa indartzen duten lankidetzak formula berriak

Euskal Fondoarekin batera, Gaztenpatia proiektua jarri zen martxan 2015/16 ikasturtean. UPV/EHUK eta Euskal Fondoak 10 urte baino gehiago elkarrekin etengabe lanean aritu ondoren abiatu zuten programa hau, unibertsitatearen misioa betetzeko: munduko desberdinkerien jakitun diren eta gizartearen garapeneraren arazoei buruzko eztabaidetan parte hartzeko gai izango diren profesionalak trebatzea. Programak printzipio hauek ditu oinarri:

- **Prestakuntza:** garapenerako proiektuetan egiten diren praktikek prestakuntzari egiten dioten ekarpen handia aitortzen du. Ikasleak hobetu egiten du prestakuntza akademikoa eta profesionala, hainbat esperientziaren bidez gehiago ikasten eta beste gaitasun batzuk garatzen baititu..
- **Enpatia:** ikasleek motibazio sendoa izan behar dute garapenerako lankidetzan jarduteko: gure gizarteak baino baliabidegabezia eta zailtasun handiagoak dituzten gizarteetara laguntza emateko nahia gailendu behar zaio praktika interesgarri eta aberasgarriak egiteko nahiari.
- **Gazteria:** gazteek esku hartzen dute, elkarlanean jardunez, gizarte erakunde bakoitzean egingo diren garapenerako lankidetzak proiektuekin lotutako herrialdeetan.
- **Komunikazioa:** gure ustez, behar-beharrezkoa da proiektu hau zabaltzea eta agerian jartzea. Hala, ikus-entzunezko mundua Gaztenpatriaren funtsezko pieza izango da, eta Ikaika Media, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoa, ikasle partaideak eta haien tutoreak komunikazio honi eusteaz arduratuko dira.

Proiektu honen II. edizioari esker, 2016/17 ikasturte honetan UPV/EHUko 8 ikastegitako 28 ikasleek (20 emakumeek eta 8 gizonek) Euskal Fondoak proiektuak abian dituen hiru herrialdeetan egin dituzte garapenerako lankidetzako praktikak edo GRALak: Guatemalan, El Salvadorren eta Nikaraguan, hain zuzen ere. 15. taulan zehatz-mehatz azaltzen da ikastegi, proiektu eta herrialde bakoitzean parte hartu duten ikasleen kopurua; bestalde, 14. taulan generoaren arabera banatuta daude ikasleak. Gainera, 2017ko uztailean lau irakasle bidaiatu dute El Salvadorrera eta Guatemalara; horietako bi Gipuzkoako Arkitektura Eskolakoak dira (zehazki, Enkarni Gómez eta Alex Mitxelena), eta beste biak, berriz, Arabako Campuseko Hezkuntza eta Kirol Fakultatekoak (Raúl Martínez de Santos Gorostiaga eta Luis Mari Sautu). Bidaia hauen helburu nagusia izan da UPV/EHUko ikasleen jarduerak gainbegiratzea eta herrialde horietako ikaskuntza komunitateekin harreman estuagoa egitea. Irakasleok datu bilketa sakona egin dute, ondoren programa ebaluatzeko fasean aztertzeko (ebaluazioa 2017ko azken hiruhilekoan egingo da).

14. taula: 2016/17 ikasturtean Gaztenpatia programan parte hartu duten ikasleak, generoaren arabera banatuta

	2016/17 ikasturtea	%
Ikasleak	28	100,0
Emakumeak	20	71,4
Gizonak	8	28,6

15. taula: 2016/17 ikasturtean Gaztenpatian parte hartu duten ikasle guztiak, ikastegiaren eta herrialdearen arabera banatuta

Herrialdea eta proiektua	Unibertsitate ikastegia	Ikasle kopurua
Gaztenpatia Suchitoto: El Salvador.	Psikologia Fakultatea	2
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	2
	Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa	2
	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	1
	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	3
Gaztenpatia Morazán (Universidad Segundo Montes) El Salvador.	Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa	4
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	1
Gaztenpatia Alta Vera Paz-Guatemala	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	3
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	1
	Farmazia Fakultatea	3
Gaztenpatia San Carlos Nikaragua	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	1
	Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa	2
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	3
	Guztira	28

3.9. Jarduera solidarioak eta gizarte erakundeak.

UPV/EHUK zeregin garrantzitsua du: ikasleak akademikoki ez ezik modu integralean ere prestatzea. Prestakuntza integral horren bitartez, etorkizuneko belaunaldiak gizarteko arazoei buruzko eztabaidetan parte hartu ahal izango dute, berdintasuna, jasangarritasuna eta giza eskubideen gaineko errespetua oinarri hartuta. Helburu hori lortzeko, noski, ezinbestekoa da hala nola solidaritatearen, berdintasunaren eta justizia sozialaren balioak hausnartzeko eta praktikan jartzeko espazioak sortzea unibertsitateko eguneroko bizitzan. Beraz, 2016/17 ikasturtean ere honako lan lerro hauek sustatu ditugu.

3.9.1. Hautazko kredituak ematea solidaritate eta lankidetzaz jarduerak egiteagatik

UPV/EHUK 2012ko maiatzean Gradu Ikasketetan Kredituak Transferitu eta Onartzeko Arautegia onartu zuen. Arautegiak 11. artikuluan dioenez, UPV/EHUn matrikulatutako ikasleek kredituak eskatu ahal izango dituzte unibertsitateko aldian egiten dituzten jarduera solidarioen truke; gehienez ere ikasketa planeko 6 kreditu lortu ahal izango dituzte, ikasturte bakoitzean gehienez ere 3, eta jardun horretan emandako 30 orduko kreditu bat emango zaie.

UPV/EHUKo Garapenerako Lankidetzaz Bulegoak solidaritate eta lankidetzaz jardueretan parte hartzen duten ikasleentz gaineko jarraipena egiten du. Bestek beste, lan hauek egin behar ditu:

- Boluntarioen agentziekin batera, ikasleek boluntario jarduerak gauzatu aurretik jasotzen duten prestakuntza antolatu.
- Gizarte erakundeekin eta GGKEekin batera, ikasleentz boluntario jarduerak koordinatu.
- Hautazko kredituak onartzeko ziurtagiriak eman boluntario jarduerak amaitzean, betiere gizarte erakundeak ebaluazio positiboa egin badu.

Solidaritate eta lankidetzaz jarduerengatik hautazko kredituak emateko programa honen barruan, hasi zenetik, UPV/EHUK 45 hitzarmen sinatu ditu EAeko gizarte erakunde eta elkarteekin. Zehazki, 2016/17 ikasturtean, beste hiru hitzarmen sinatu ditu ASPACE, ASAFES eta ACOES erakundeekin. Ikasturte honetan, halaber, denera 646 kreditu eman zaizkie UPV/EHUKo hiru campusetako 199 ikasleri (143 emakume eta 56 gizon).

3.9.2. Boluntariotzaz programa autokudeatua

UPV/EHUK hautazko kredituak ematen ditu UPV/EHUKo ikasleek zuzenean sustatzen dituzten solidaritate eta lankidetzaz jardueren truke. Jarduera horiek jarduerak autokudeatuen epigrafean sartzen dira, eta honako ezaugarri hauek bete behar dituzte:

- Unibertsitate edo gizarte erakunde batean egin behar dira.
- Jendeari irekita egon behar dute, eta UPV/EHUKo graduren batean matrikulatutako 3 ikasleek sustatu behar dituzte gutxienez eta zazpi gehienez.
- Jarduera solidarioak izan beharko dute, eta behar sozial edo globalen bati edo talde espezifikoaren bati erantzun beharko diote.

- o Ikasle bakoitzak gutxienez 30 ordu eman beharko ditu jarduera solidarioan.

2016/17 ikasturtean, honako hiru jarduera autokudeatu hauek egin dira: lehen laguntzak; Alemaniako errefuxiatuen harrera eta integrazioa; eta SOS ARRAZAKERIAREN erakusketetako bisita gidatuak.

Lehen laguntzetako programa autokudeatua

UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko ikasle batzuk, borondatez eta modu solidarioan, hala programa bera nola jardunaldien nondik norakoak zehaztu dituzte. Gai hauek landu dituzte jardunaldietan:

- o Bihotz-biriketako bizkortzea (BBB)
- o Istripuzko intoxikazioak haurretan
- o Zauriak, erredurak, kontusioak
- o Larri dauden pazienteenganako arreta
- o Eztarriko trabamenduak, konbultsioak eta sinkopeak

2016/17 ikasturtean, lehen laguntzen inguruko 4 jardunaldi egin dira: bi Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan eta beste bi Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan, 2016ko irailaren 29an eta 2017ko otsailaren 16an izan ziren jardunaldiak, eta 81 ikaslek parte hartu zuten (%86 emakumeak). Zientzia eta Teknologia Fakultatean, lehen jardunaldia 2017ko apirilaren 27an egin zen, ikasleentzat antolatua, eta 37 ikaslek parte hartu zuten, gehienak emakumeak (%70); bigarren jardunaldia, irakasle eta ikertzaileentzat antolatutakoa, 2017ko maiatzaren 11n egin zen, eta 12 kidek parte hartu zuten.

Jardunaldien balorazioa dela eta, azpimarratu behar da parte hartzaile gehienek esaten dutela euren burua nahiko gai ikusten dutela egoera kritiko bati erantzuteko, eta landutako gaiak oso baliagarriak izan zaizkiela euren lanerako edo ikasketetarako.

Alemaniako errefuxiatuak hartzeko eta integratzeko programa autokudeatua

Lehenengo aldiz, 2016/17 ikasturte honetan, UPV/EHUko Letren Fakultateak Leipzigerako (Alemania) bisita bat antolatu du, Alemaniako errefuxiatuak zein testuinguru politiko, sozial eta kulturaletan hartzen eta integratzen diren ikusteko. Boluntariora autokudeatuko jarduera hau Letren Fakultateko zazpi ikaslek antolatu dute. Leipzigerako bisita horretan, hainbat leku ezagutu dituzte: arreta soziokulturaleko zentroak eta errefuxiatuei laguntzekoak, Leipzigerako Migrazio eta Integrazio Unitatea eta eskualdeko integrazio eskolak. Gainera, ikasleok elkarriketak egin dizkiete Leipzigerako Unibertsitateko irakasleei, integrazioaren alorrean egiten diren unibertsitate proiektuen berri izateko.

Bidaiaren emaitza gisa, ikasleek erakusketa bat eta ikus-entzunezko erreportaje bat egin asmo dute beste unibertsitate batzuetan erakusteko. Parte hartu duten ikasleek nabarmendu dute esperientzia aberasgarria izan dela bai kulturaren aldetik, bai elkarren arteko kulturen ikuspegitik, bai hizkuntzalaritzaren aldetik.

Zuzenbideko, Psikologiako eta Kriminologiako ikasleek SOS ARRAZAKERIAREN erakusketari buruz egindako bisita gidatuen programa autokudeatua

Unibertsitateko kideek errefuxiatuen errealitateaz gehiago jakiteko helburuz, Psikologia, Zuzenbide eta Kriminologia fakultateetako eta UPV/EHUren Gipuzkoako Campuseko Eskola Politeknikoko 18 ikaslek gidari gisa parte hartu dute "Ongi Etorri Errefuxiatuak" erakusketan.

Erakusketa urriaren 24tik azaroaren 6ra bitartean egon zen ikusgai Ignacio Barriola Zentroan (Gipuzkoako Campusa), eta ehunka pertsona bertaratu ziren (ikasleak, AZPkoak

eta irakasle eta ikertzaileak). Guztira, Psikologiako, Kriminologiako eta Zuzenbideko 316 ikaslek bisitatu zuten erakusketa (% 53,2, % 36,6 eta % 10,2, hurrenez hurren), 2016ko azaroaren 4an egin zen bisita irekiaren bitartez edota unibertsitateko ikasle eta irakasleek 2016/17 ikasturtean egindako 17 bisiten bitartez.

3.9.3. Boluntariotzaren Azoka

80 erakunde baino gehiago batu ziren Boluntariotzaren II. Azokara, 2016ko apirilaren 20an, asteazkenez (aldi berean egin zen UPV/EHUren hiru campusetan). Jarduerak, dena dela, apirilaren 20tik urriaren 29ra bitartean egin ziren. Gizarte erakundeek UPV/EHUko komunitatea sentsibilizatzea eta informatzea xede duen azoka hau galdu ezineko topagune bilakatu da.

UPV/EHUK antolatzen du azoka, Bolunta, Gizalde eta Arabako Sartu erakundeekin, Euskadiko GGKE Koordinakundearekin eta UPV/EHUko Ikasle Kontseiluarekin batera. Standak eta erakundeak Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko arkupeetan (Bizkaiko Campusa), Ignacio Maria Barriola Zentroan (Gipuzkoako Campusa) eta Lascaray Ikergunean (Arabako Campusa) kokatu ziren. Standez gain, erakundeek zenbait prestakuntza jarduera egin zituzten UPV/EHUko ikastegietan. Hauek nabarmendu daitezke:

- Bihotz-biriketako bizkortzea (BBB) lantzeko tailerra, DVAREN eskutik.
- Bidezko merkataritzako produktuen erakusketa, pobreziaren kontra laguntzen duen Intermon Oxfam elkartearen eskutik.
- Lankidetzan oinarritutako jolasak, hezkuntza inklusiboa sustatzen duen Intered GGKEaren eskutik.
- Argazki erakusketa, adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Atzegi elkartearen eskutik.
- Liburu oparitzea, kaleko solidaritate eta kulturaren Kaleko elkartearen eskutik.
- Bidezko merkataritzako kafearen eta gaileten dastatzea, Gipuzkoako boluntarioen Gizalde agentziaren eskutik.

Egindako balorazio inkestetan, hala ikasleek nola boluntarioen elkarteek erantzun dute "oso pozik" gelditu direla jarduerok.

3.9.4. Lankidetzaren hitzarmenak gizarte erakundeekin

Gure inguruko gizarte erakundeekin eginiko lanari esker, giza garapen iraunkorra unibertsitatera hurbildu dugu. Hala, 2016/17 ikasturtean honako jarduera hauek egin ditugu:

• Unikide programa - UPV/EHU

Unikide programa 2012an sortu zen, Bizkaiko boluntariotzarako eta partaidetza sozialerako Bolunta agentziak eta UPV/EHUko Gizarte Erantzukizunaren eta Unibertsitate Hedakuntzaren Errektoreordetzak sustaturik. Unikide programaren helburua da UPV/EHUren Bizkaiko Campuseko kideak gizartean parte hartzea bultzatzea; ildo horretatik, UPV/EHUren Bizkaiko Campuseko ikastegietan elkarte eta boluntario sarea indartzeko plan bat osatu da.

• Gizalde programa - UPV/EHU

UPV/EHUK, 2016an, Gipuzkoako boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren aldeko Gizalde agentziarekin lankidetzan jarduteko programa bat ezarri zuen, Gipuzkoako Campuseko ikastegietan sentsibilizazio jarduerak egiteko asmoz. Jarduera horien bitartez, partaidetzaren eta solidaritatearen balioak eta kultura nabarmendu eta hedatu nahi dira, eta boluntario lana sustatzeko zerbitzu etengabea eman nahi da.

Unikude eta Gizalde programek lan ildo berberak dituzte:

- informazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa;
- boluntario lana sustatzeko ekintzak;
- UPV/EHUren eta gizarte erakundeen arteko lankidetzak;
- baliabide teknikoaren mailegua.

2016/17 ikasturtean ere, boluntario lanaren inguruko erakusketa eta hitzaldi hauek antolatu dira:

- Sareginez-en argazki erakusketa. 2017ko urriaren 30etik otsailaren 8ra bitartean, Gipuzkoako boluntario lanarekin lotutako 47 irudi erakutsi ziren Gipuzkoako Campuseko erakustaretoan. Erakusketaren helburua zen boluntarioen lana agerian jartzea eta ikusleak hausnartzera bultzatzea.
- Save The Children-en argazki erakusketa. 9 argazki panel erakutsi ziren, haurren pobrezia buruzko datuekin, Leioako Campuseko Liburutegi Nagusiko hallean, 2017ko martxoaren 1etik 31ra. Erakusketaren helburua zen erakundearen lana ezagutaraztea eta unibertsitateko ikasleak sentsibilizatzea.
- Udako boluntariotza kanpainari buruzko informazio hitzaldi bat eman zien Bolunta Bizkaiko erakundearen koordinakundeak ikasleei, 2017ko martxoaren 30ean, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Elkano Atala).

3.9.5. Hozkailu solidarioa

2016ko urtarrilean, UPV/EHUK, Leioako Ostalaritza Eskolarekin eta GBGE Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkartearekin batera, Hozkailu Solidarioa jarri zuen martxan. Proiektu horren helburua da unibertsitateko jantokian elikagaiak ez xahutzea eta hondakin organiko gutxiago sortzea. Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkarrekin egindako proposamenaren harira sortu zen hozkailuaren proiektua, eta Ostalaritza Eskolak eta UPV/EHUK hasieratik babestu zuten.

Urtebete martxan egon ostean, 2016/17 ikasturtean ere 10 eta 20 errazio artean ematen dira egunero. Ostalaritza Eskola arduratzen da egunero 15:00etatik aurrera elikagaiak hozkailuan jartzeaz, eta hozkailua 08:00etatik 20:00etara egoten da zabalik. Aurten, gainera, kafetegiko sandwichak eta pintxoak ere sartu dituzte.

Ostalaritza Eskolako irakasle eta ikasleen ahaleginari esker funtzionatzen du Hozkailu Solidarioak, haiek arduratzen baitira egunero-egunero hozkailua betetzeaz eta garbi edukitzeaz.

Bestalde, UPV/EHU mota horretako proiektu bat sortu eta lantzen duen lehendabiziko unibertsitate erakundea da. Proiektuarekin, hain zuzen ere, sobera dauden elikagaiak aprobetxatzen dira eta ez dira xahutzen; izan ere, gehienetan erabat aprobetxa daitezke.

ESKERRAK

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoak bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkie memoria honetan aurkeztutako jarduerak eskuzabaltasunez antolatzeko denbora hartu duten guztiei, haiek gabe ezin izango baikenituzke aurrera atera. Mila esker guztioi.